

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko abuztuaren 7tik abuztuaren 11rako astea


➤ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA ETA KPI



Datuaren analisisia

Italian izan ezik, industria-ekoizpenaren datuak kaskarrak izan ziren. Izan ere, Italian, urte arteko datuak % 5,3 egin baitzuen gora ekainean, aurreko hilean baino % 1,1 gehiago. Urteko lehen sei hilabeteetan, industria-ekoizpena % 2,2 igo zen, iazko epe berarekin alderatuta. Alemaniako industria-ekoizpenak % 1,1 egin zuen behera ekainean, 5 hiletan izandako lehen beherakada. Analistek, ordea, % 0,2 inguruko gorakada berri bat aurreikusi zuten, maiatzetan izandako % 1,2ko igoeraren ostean. Frantzian, ekoizpenak -% 1,1 egin zuen behera ekainean (maiatzetan % 1,9 igo zen), eta, beraz, aurreikuspenak (-% 0,6) ez ziren bete.

Bestalde, EDBko ekonomia nagusien uztailako KPIaren azken datuek indizearen lehen irakurketa berretsi zuten (Alemania +% 1,5 u., Frantzia +% 0,8 u., Espainia +% 1,5 u. eta Italia +1,2% u.).


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

KPIa hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia

Erresuma Batuan, industria-ekoizpenak +% 0,5 egin zuen gora, aurreikusitako +% 0,1aren aldean. Nolanahi ere, zifra horiek ez ziren hain positiboak izan, gorantz apainduta baitzeuden meatzaritzako (+% 4,1 hilean) eta petrolioaren sektorearen (+% 5,0 hilean) jardueragatik, lehengaien prezioek izandako hobekuntzaren erakusgarri. Horiek horrela, kontuan hartu beharreko erreferentzia manufakturen jarduera zen, eta ekainean oraindik aldaketarik gabe jarraitzen zuen, espero zen moduan.


Urte arteko tasari dagokionez, industria-ekoizpenak % 0,3 egin zuen gora, aurreikusitako -% 0,1aren eta aurreko -% 0,2aren aldean. Manufakturen ekoizpenak, bestalde, urte arteko % 0,6 egin zuen gora, espero zen mailan.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia

Ekainean gorabeherarik izan ez zuen Amerikako inflazioak % 0,1 egin zuen gora uztaillean, % 0,2 igotzea espero zenean. Urte artekoa % 1,7koa izan zen, analistek espero zuten % 1,8aren eta ekaineko % 1,6aren aldean. Estatu Batuetan, kontsumorako prezioak arinki igo ziren uztaillean, hain zuzen, beste produktu batzuen prezioen beherakadak arindu zuelako elikagaien kostuen gorakada. Horregatik, litekeena da Erreserba Federalak zuhur jokatzeko interes-tasen igoerari dagokionez.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
08/14	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.6
08/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 7.1
08/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.5
08/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
08/15	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.7
08/15	Alemania	Urte arteko WDA PMIa	% 1.9
08/15	Alemania	Urte arteko BPGd NSA	% 0.6
08/15	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.0
08/15	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.4
08/16	Italia	WDA QoQ BPGd	% 0.4
08/16	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.5
08/16	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 0.6
08/16	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1225k
08/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 0.8
08/16	Estatu Batuak	Eraikitze baimenak	1250k
08/16	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
08/17	Japonia	Balantza komertziala	¥353.6b
08/17	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	% 9.5
08/17	Eurogunea	Balantza komertziala SA	20.5b
08/17	Eurogunea	Hileko KPIa	-% 0.5
08/17	Eurogunea	EBZren bileraren aktak	0
08/17	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	19.0
08/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.3
08/17	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0.3
08/18	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.0
08/18	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	94.0
08/18	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
08/18	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--

BURTSAK:

Munduko burtsa-merkatuen itxieretan nabarmentzekoak izan ziren beheranzko zuzenketa handiak eta hegazkortasunaren handitzea. Nolanahi ere, negoziazio-kopurua urria izan zen, abuztuan ohikoa izaten dena. Datu aipagarriak gabeko astean, AEBen eta Hego Korearen arteko tentsio geopolitikoak bereganatu zuen merkatuen arreta, Kim Jong-un eta Trumpen arteko "tirabira dialektikoa" tarteko. Hego Koreak armada estatubatuarrak base garrantzitsu bat duen Guam uharteari lau misil jaurtitzeko planaren berri eman zuen. AEBetako presidentek, bestetik, probokazioekin jarraitzekotan, "su eta indarkeriaz" Hego Korearen kontra egiteko mehatxua egin zuen. Egoera horrek ezinegona eragin zuen inbertitzaileen artean, eta arrisku handiko aktiboetatik aldentu ziren. Bigarren mailan geratu bazen ere, nabarmentzekoa da konpainien % 90ek beren enpresa-emaitzak aurkeztu zituztela, eta, oro har, portaera irmoa izan zutela. Analisten gehiengoaren aurreikuspenak gaitzitu zituzten enpresen kopurua % 78koa izan zen AEBetan, % 68koa Japonian eta % 58koa Europan. Akzio bakoitzeko etekinak % 22 egin zuen gora Japonian, % 13 Europan eta % 9 AEBetan.

ERRENTA FINKOA:

Burtsetan egindako salmentak zor subiranoaren erosketekin tartekatu ziren, seguruagotzat jotzen diren aktiboen bila. Hori dela eta, errentagarritasunek behera egin zuten, eta, Europan, periferikoek arrisku-primak handitu zituzten. Kreditu-diferentzialek, aldiz, gora egin zuten, errenta aldakorrarekin gertatutakoaren antzera.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Azpiarratzekoa da Yenak gainerako dibisa nagusien aurrean izandako balio handitzea, ezegonkortasun uneetan babes aktibo bihurtuz. Euroak, halaber, balioa handitu zuen dolarraren aurrean, AEBetako inflazioaren datuak aurreikusitakoen azpitik kokatu baitziren. Lehengaiak dagokienez, urrea (babes balio nagusia) izan zen tentsio geopolitikoaren onuradun nagusia, iazko azarotik lortzen ez zuen mailaraino igo baitzen. Hegazkortasuna petrolioaren prezioan, nahiz eta asteko balantzean egonkor mantendu. Zenbait informazio-iturriren arabera, eskaintza gehiegizkoa izan zen, eta beste batzuen arabera, berriz, munduko eskariaren aurreikuspenek hobera egin zuten.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Eur)	167,81	-1,86	-1,02
IBEX 35	10.282,90	-3,52	9,95
DJ EURO STOXX 50	3.406,34	-2,88	3,52
DJ STOXX 50	3.030,83	-2,93	0,67
FTSE	7.309,96	-2,69	2,34
S&P 500	2.441,32	-1,43	9,04
Dow Jones	21.858,32	-1,06	10,60
NASDAQ	6.256,56	-1,50	16,23
NIKKEI 225	19.729,74	-1,12	3,22
MSCI EMERGENTES (Eu)	347,34	-2,62	8,18
MEXBOL	50.645,10	-1,33	10,96
BOVESPA	67.358,59	0,69	11,84
SHANGHAI	3.360,18	-1,64	3,40
Rusia Rts Moscú	1.022,41	-0,42	-11,27

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,72	-0,03	0,05
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,30	0,01	-0,03
EE.UU 2 AÑOS	1,29	-0,06	0,11
ALEMANIA 10 AÑOS	0,38	-0,09	0,17
ESPAÑA 10 AÑOS	1,46	-0,03	0,07
EE.UU. 10 AÑOS	2,19	-0,07	-0,26
ALEMANIA 30 AÑOS	1,12	-0,10	0,18
ESPAÑA 30 AÑOS	2,74	-0,04	0,12
EE.UU. 30 AÑOS	2,79	-0,06	-0,28

Spread de crédito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	57,31	5,61	-14,73
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	249,38	18,24	-39,32

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,18	0,42	12,38
Yen / Euro	129,08	-0,94	4,94
Libra / Euro	0,91	0,70	6,53

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	51,75	-0,29	-6,61
Oro	1.289,35	2,43	11,90

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.